

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Pamplona - Septiembre 1966

DIRECTOR: J. E. URANGA

Lukas Zufiaurre



Bada Urdiain'en glizon bat... Lukas.

Lukas'ek Testamentu zaharreko jakintsua dirudi. Ez aundi, eta ez txiki; burua txuri eta begiak argi. Gerritik gora ez du gaitzik.

Ori bai; jakinduriak adina behar du eta, Lukasek adina badu: bere laurogei ta bost urteak belaunetara zaizkio jetxi eta, ez du orai gazte denborako dantzarik. Alare, Jainkoari esker eta erreumatismaren baimenarekin, geldi bada ere, egunero badabil.

Lukasek, Zufiaurre du aitarengandik; eta Mendia, mundura ekarri zuen amaren aldetik. Amaren aldera atera dela esango nuke nik; Urdingo mendien berri ongi badaki. Bere bizimoduak dio erakutsi.

Txerzai lehenik; beizai eta erriko guarda gero, Urbasa mendiko pago eta beko-basoko jentilen aitzetatik du, Lukasek, bere jakinduri arrigarria. Liburu aundi batek baño askoz geiago daki. Nik esango nuke, Eskualerriaren jakintza liburu batean sartzen ahal balitz, Lukas laikela liburu orl.

Lengo denboretan ba omen ziren gizon auetatik;

eta izango ziren, naski. Bestela, onek dakin guzia nundik ikasi? Eskualdunen jakite guzia errikoia da; liburuek lan gutxi eman diote gure erriari. Agoz-ago dakigu aurrekoen berri. Gizon jator baten agotik nork daki zenbat jakinduri; zenbat urretako iturri!

Eta adin ortako gizon bat Lukasen adimen eta talentu osoan gure eskutaratzea, biotzez Jainkoari esker emateko gauza da. Asko da bere ezpainenatik jaso; eta beste asko jaso nahi ginukena. Ehun ipuyetik gora, esames (refran), eta gertaerak. Bertsu zahar eta erriko koplak. Eta geiena balio duena, gutxitan ikusten den bizitasun eta gatz neurrian emanak.

Beste noizbait aipatuko ditugu Lukasen «iximpluak». Gaur izena bakarrik nahi ginuen eman. Izena eta, bere aurpegia. Bilbo'ko margolari (pintore) aundia den Lertxundik egin dio, aurrean duzuen erretratua. Gogoan artu; Lukas Zufiaurre bezalako gizonak izan laizke, banaka banaka, gure erritan. Emendik urte batzutura beranduegi izango da, behar bada. Gure eskutan dago auen eskual-jakinduri guzia ez galtzen uztea. Lukas bezalako gizonak dira Eskualerriko liburu jatorrak. Auen agotan bizi da Eskualerriaren Jakintza!



Mundu zabalean

Frantziako lendakari De Gaulle jauna, Kanbodia aldean izan berri dugu. Bere burua erakusten du. Kanbodia, Asia behean dago. Sei bat millon arima ditu eta sinestez Budaren legekoak dira. Bi izkuntza dituzte zabalduenak: Kanbodiara eta frantseza. Nekazalgotik dute ogibidea. Arroz, kautxo, pipa-belar eta artoa biltzen dira batez ere. Laetatik iru oihan; eta mendiak ere ez dituzte baliatzen. Lurzulo (mina) eta industri gauzetan eskas dabilta. Norodom Shianouk, errege izanak, sartu zuen 1955' ean oraiako Sozialismo errikoia. Geroztik bera da buru.

De Gaulle aundiaren itzak, Ipar-Ameriketako Viet-Nam aldean egiten duenari ezetzkoa emateko izan dira.

«Geminis XI», (bizkia, bidazkako, biñaka sortua esan nahi du itz orrek), eta izar aldera joateko tresna da. «Agena» izenekoari lotu da gain artan, idiak gurdiari bezala; eta nahi zuten guzia egin dute gero arekin. Oraindik zer adituko dugun!

Egoafrikako lendakaria ere hil dute. Batzartegian bertako mutil batek. Xuri-beltzen berexitale porrokatua zen. Afrika zola artan amazapi millon ta erdi biztanle dira; oietatik iru bat millon xuriak eta, ogeita amaika eskutik dute egiten. Nekazari izanak dira baño, urre ta diamantezko arpeak atera zaizkie nunahi. Industri lanetan aurreratu dago.

Txina aldean nasketa. Lengo bidera, alegia, lenbiziko komunisten legera itzuli nahi lukete. «Guardia gorriak» direla ta, gazte batzuk asarre agertu dira. Mao-Tse'n morroi auek ez dute begi onez ikusten Errusiaren Sarraldera itzultzea. Beti zerbait!

El General De Gaulle ha girado una visita a Cambodia dentro de su política de expansión. Cambodia es un reino situado en el Sur de Asia con una población de 6 millones de habitantes, de religión budista y cuyas lenguas principales son el camboyano y el francés. La agricultura es la base de su economía; arroz, caucho, tabaco, algodón y maíz. Los bosques cubren el 75 % de la superficie y están prácticamente sin explotar. Minería e industria subdesarrolladas. El ex-rey de Cambodia, Norodom Shianouk, organizó la Comunidad Popular Socialista que controla el gobierno desde 1955.

El General De Gaulle pronunció un discurso descalificando la intervención militar de los Estados Unidos en Viet-Nam.

El Geminis XI y el Agena han tomado contacto. Los astronautas Conrad y Gordon han logrado un éxito más en las pruebas espaciales norteamericanas.

El Presidente de la República Sudafricana, Sr. Verwoerd, ha sido asesinado por un ujier en la sala del Congreso. Verwoerd fue un defensor del «apartheid», es decir, de la discriminación racial. Sudáfrica tiene 17,5 millones de habitantes de los cuales tres millones son europeos de religión protestante principalmente. Los blancos controlan el país. La tradicional economía agrícola ha sido sustituida por la explotación de las importantes minas de oro y diamantes. La industria está asimismo muy desarrollada.

En la China se ha producido una revolución de carácter revisionista y vuelta a la línea comunista de años atrás. Los «Guardias rojos», jóvenes extremistas, de Mao Tse Tung han provocado disturbios señalando su disgusto por el relativo acercamiento de Rusia a los países occidentales.

Españako berriak



Azkenean, diotenez, Españako langile saria 108'90 pesetara gutxienez ere, jasoko dute. Urtean 305 egun lan eginez kontuak ateratzen dituzte.

Aragoiko Lege-bilduma onar-Aragoiko Lege-bilduma onartuko duen lege bat ateratzekoa da. Udatea. Kanpotarren kontua.

Igaz baño, ehunendako ogei-tairu geyago izan omen dira Espainan sartu direnak. Noiz arte?

Burgoseko Ayoluengo aldean ogei ta sei putzu dira iturri beltza eman dutenak.

España guzian langilen ordez-kariak aukeratuko dituzte orai: Ayundamendutako, emezortzi milla; Kortetako, 194; zazpireun eta larogeita bost, mail-goratzeko (Desarrolloko) artu emanetako. Eta azkenekotz, 87 Deputatu.

Lopez Bravo jaunak Naparroko itzuliaren berri eman du Ministroen billeran.

Millonak ura bezala! Bi milla millon peseta gostako dira Gipuzkoan Gobernuak egingo dituen lanak. Ots, bideberri lan, Donosti inguruko bide, eta Uru-mea garbitzea. Bada nun...

Según declaraciones oficiales el Consejo de Ministros ha acordado la elevación del salario mínimo a 108,90 Ptas., día por 305 días de trabajo anual.

Se presenta un proyecto de Ley a las Cortes sobre Compilación del Derecho Civil de Aragón.

Según datos estadísticos, el turismo extranjero en España representa para este año un aumento del 23 % sobre el de 1965.

Se han efectuado hasta el momento 26 sondeos productivos en el pozo petrolífero de Ayolengo.

Se anuncian en toda España elecciones sindicales de las que han de salir 18.000 concejales, 87 diputados, 194 procuradores en Cortes y 785 representantes en las comisiones del Plan de Desarrollo.

El Sr. López Bravo, Ministro de Industria, informa en el Consejo de Ministros sobre su visita a Navarra.

Se aprueba la asignación de 2.000 millones de pesetas para obras públicas en Guipúzcoa resaltando carreteras, circunvalación de San Sebastián y saneamiento de la capital guipuzcoana.



Orriaga-ko Ama Birjiñaren ele xarra



Ibañetako elurren txuria, neguan, eta uda beroan pago beso zabalen itzala! Erran nahiaren ezin erranak —zure inguruan—, Orriaga'ko Ama Birjiña.

Mendi gain ortan zeru zabala, muga gabeko Ama baten bihotzak. Zoin apal mendiak eta, gizona ain itsu, Añamendiko Erregina!

(«ORRIAGA», sic)

Orriagako Ama Birjinaren istorioa polita da. Ona emen laburki. Orreagatik urbil, artzain batzuk beren artaldean zain egoten ziran. Larunbat batez, ilunabartu zuelarik, basantz eder bat oianetik atera zen, eken aitzinetik zauli pasa eta belardiaren bixkar batean, iturri baten ondoan, gelditu zen, belaunikaturik, zerura begira. Aren adarraje larria argi ederrez argitu zen eta bitartean kantu entzungarria zerutik aditu zen, Salve Regina kantu xamurra. Gertaera arrigarri au zen-bait larunbatez berritu zen.

Iruñeko Obispoari adiazten diote, baño eztu berealakoan sinesten. Aingeru batek gauze iratzartzen du eta Ama Birjinaren naia aditzera ematen dio: Orriagara igan dadiela eta gertaera miragarria berak bere begiz ikusi dezala. Eta ala, Orriagara igaten da, eta arekin batean Nafarroako erregina Andere Oneka ere, jaun aundikiz inguratua. Larunbata da. Belardian, ilunabarrean gelditzen dira. Eta ara, berzetan bezala, basantz laister bizian agertzen, belardi bixkarrean iturri ondoan gelditzen, adarrak argi miragarritz distiatzen, aingeruen kantua aditzen.

Agerkunde ori ikusi ondoan, Obispo jaunak bixkar ura aitzurtzeko manatzen du eta barna aitzurtuz Ama Birjinaren iduri edo imajina eder eder bat arkitzen dute, moroak etorri ziranean, eken beldurrez lurpean altxatua edo... ¿Gertatua?

¿Ele xarra? Bietaik agian. Nola nai dela, egia, Iruñeko Obispo Sancho de la Rosa argiak, XIII mendean, Orriagako Ama Birjinarendako jau-regi ederra, bere apez zerbitzariendako konbentua, eta beilari edo peregrinoentzat Ospitalea fundatu zituela; egia, andik unat, mendez mende, Orriagako Ama Birjinaren aitzinean argiak eta urreak distiatzen dutela; egia, kanonigo jaunak eta erromesak (peregrinoak) Salbe kantu xamurra egunero mendez mende Ama Birjinaren aitzinean kantatu dutela; egia, Ama Birjinaren iturria edo ta Aingeruen iturria deitzen den iturri xaarra badela...

Orriagako Ama Birjinaren imajina ederrenetakoa da: Ama yarrita ageri da, Aurra besotan: Ama Aurrari ezteki begira eta Aurra Amari irriantxan... Amairugarren mendean egina omen. Jakintsu batek dionez, Orreagako Ama Birjina mende aietako imajina guzien artean munduan den ederrena da.



Iñaki Larramendi, Beratar olerkari zena

Illeoro Nafarroko euskal olerkari (itzneurlari), edo bertsolari baten berri eta lanak emango dugu aldizkari ontan, euskal napar guziek euskerazko bertsoak irakurri ditzaten.

Asiko gera argitaratzen Bidasoko Beran jaio, bizi eta il zen Larramendiren berriak eta ondorean gure Berako Joakin Aldabek Larramendi eskeindutako bertsoak. Beste egun batean Larramendiren bertsoak ere argitaratuko ditugu. Iñaki Larramendi mundu ontara 1874 urtean etorri zan, bere biotzeko Bidasoko Beran bertantxe il arteraño bizi izan zen eta Betiko Erbestetara Alzate Auzoko «Erriko itxia» izena duen etxean il zen 1960 urteko Aguztuaren amargarrenean. Erriko seme zintzoa, euskaldun eta euskaltzale argi, sutsu eta leiala, benetako kristaua, euskeraz bertsoak konpontzen

trebea, izan zen gure bidasotarra. Larramendik bertso bilduma batzuek idatzi zituen, eta «Olerkiak» deritzan liburuxoan, Zarautzko «Itxaropena» Moldiztegian, argitaratuak dira bere bertsoak.

Euskaltzaindiak, edo Euskal Akademiak, laguntzalea izendatu zuen.

Onako bertso au Iriarte Ataloko bertsolari gazte zenak Lesakan 1960 urteko Naparroako Bertsolarien Azken Txapelketa Nagusian, il berri zegoen Iñaki Larramendiren omenez, kantatu zuen:

Lendabiziko arratsalde on opa dizuet danori, gure barrendik alaitasuna besterik ezta agiri. Udaberriaren txorien modun emen gatozte kantari omenaldi bat egin naiean Iñaki Larramendiri.

Beratar Iñaki Larramendi'ri agur maitekor bat

BASURKO Irun'go olerkariyak bertso polita batzuetan jartzen du Iñaki Larramendi'tar goratuta zeruetan... Nik diot arrazoi duela dabil oso egiyetan. Ori ta geigo merezi digu Beratar onek benetan izan dalako agitz zintzoa bere gauza guztietan.

LARRAMENDI'TAR IÑAKI jauna, gizon ospetsu zu zera. Jayo ta bizi zeran erriyak izen ederra du: BERA. Kristau jatorra ezautu zaitut ta ez makala ta bera. Aintziñetik elkarren lagun gu biok izana gera. Egia dala jende guztiiyak dakite, noski, sobera.

¡Zenbat urtetan aritua zera Bera'ko elizen koruan Jaunari kanta goxok abesten Seraphin baten moduan! Zuk aii ederki egiñ zenduna daukat betiko goquan. Sari bikaña artuko dezu bere garaya orduan, mundu utzi ta sartzen zeranian irauzitako zeruan...

Gizon bromosua iñun bazegon,


textok zekizkiñ ugari; ixtori zarra ta ixtori berri eragiñazteko irri. Amaika alditan jartzen giñuzen lertzeko zorin ta larri. Nastuko zitun agitz poliki elkarren artin zar-berri. Urari ura t'arduari ardo, bildur gabe egiyari.

PARNASO mendin izana ziñan olerki eskola ikasten. OLINPON ere ikasi zendun ezti zumua edaten. Trebia zera ta oso azkarra itzak poliki neurtutzen; pitxi berexi lilluragarririk erraz ta beila ikusten. Biyotz-biyotzez, adixkidia, zaitut estu besarkatzen.

Lenera nua, Iñaki lagun; guazen parroki korura. Zure abestiak iyotzen ziran Jaun aundiyaren Tronura. Santu guztiiyak arkitzen diran zorion beteko lekura. Oraindik ere nire belarrik olako boza doñura jarriyak daude t'atsegiñ zaizkit. ¡Zu ziñan, bai, Aingeru ura!

JOAQUIN ALDAVE

Obanoz'ko Gilen eta Felissi Sainduen gertaera Izkutua



Igaz bezela aurtzen ere Obanoz'en Gilen eta Felissi Sainduen Izkutua gogorazteko Teatro agerketa batzuek egin dira, Aguztuaren 19, 20, 22, 23, 24, 26, 27 eta 28 egunetan. Zortzi agerketa danetara, eta denak Obanoz'ko platzen erdian. Teatro agerraldi bakoitzak gende pillaka bildu zuen Naparroatik ez ezik, baita Gipuzkoatik eta Alabatik multzoka allegatuak ere, eguratsoko tokiak mukuraño betetzen zirelarik.

Arrakesta aundia «Pasturala» antzeko «kale erdiko» teatro onen agerketak artzen ari direla igaztik aurtenera.

Ona emen, laburki esanez, Izkutu onen gaia: Esaten omen da Frantzia'ko Akitania aldetik Konpostelaraño Felissi izena zuen Errege-alaba bat erromes, edo beilaz gisan, joan zela Erdiaroko denboretan. Erromesek (Beilariak) arriturikan eta Konpostelan egiten zen giroak irabazia, bere errialdera itzultzean gure Naparroako Amokain'en Jauregian izkutua geratu omen zen (Egués Ballean), munduko erreztasun, lasakeri, ondusun eta abereskerietatik iges narrik.

Bere anai zen Gilen beraren bila etorri omen zen, Santiao bidean zear, Akitania berriz eramateko. Amokain'en billatu zuen eta eztabaitan ari ziren, Gilenek bere arreba munduko ameskerietara eta festetara eraman nai zuen, baño Felissik etzuen bere etxera itzuli nai izan; eta Gilenek bere alegiñak utsak eta alperrekoak zirela ikusirik, sumindu eta amorratu zen eta bere arreba illazi zuen sastakadaz. Gaiztakeri onek damutua eta bekatu onen garbitu bearrak bultzatua, Gilen ere Konpostelarako bidea artu zuen erromes, eta

biurtzean Obanoz'ko Arnotegiko Ama Birjiñaren ondoan bere bekatua ordaindu eta garbitu naiez gelditu zen.

Felissiren gorputza Iruñe aldeko Aranguren Balleko Labianoko Elizatxoan dago. Gorputza au ustelgabedago. Gilen ezurak, kiskaildu eta kizutuak daude, eta Obanoz'ko barrutiaren barneko menditxo baten dagoen Arnotegiko Ama Birjiñaren Elixatxoan dira.

Santos Begiristain apez Jaun Agurgarriak ele zaharra au gaitzat arturik teatro lan bat ikusgarria antolatatu du. Manuel Iribarren Iruñeko seme idazlari famatuak, poema gisan, itz neurtuz eratu du. Erdiaroko melodiaz baliaturik soñu berezi bat osatu du Luis Morondok. Claudio de Latorre Teatro onen zuzendaria da, eta badakigu nola trebe eta ezagutua den artezko lan oketan. Arilarik edo Teatrolariak beren paperak ongi ikasirik edeki azaldu dira. Nabari izan dira Alberto Klosas eta Hedda de los Rios. Obanoz'ko laureun erriko seme ari izan dira eta bai beren betebearrak xarmanki eta egoki bete izan dituzte.

Urteoro, Jaungoikoak lagun, Izkutu au Obanoz'en ageraziko du eta Obanoz'ko erriar guziei esker, Santos Begiristain apez argiak antolatutako Antzerki edo Teatro au gero eta indar geiago urtetik urtera artuko du.

Zorionak Obanoz'ko erriari, eta bereziki Izkutu onen eratzale eta biziemalle den Begiristain apez trebeari.

IKUSLE

ERRIZ - ERRI.

ORRIAGA

Ille onen amalaugarrenean Frantzia aldeko Nafarroa, Batxe Nafarroa erratan denez, erromeriaz edo beilaz, Orregako Ama Birgiñari ooratu, otoiztu eta eskerrak eman eta eskatzeko, joan zen.

Beila au ikustekoa da, eta urteoro izaten dena: BatxeNafarroako errietatik apezak eta nekazariak Ibañetako bideberritik, edo mendian zear Napoleón'go bidetik, Orreaga'ko Amatoxorengana juaten dira otoiz egin beharrez. Bi milla gende bildu zen, eta goizean Meza eta Jaunartzea izan zituzten, gero bazkaria eta ondorean Elizara berriz beren agurrik sentikorrenak Auñamendiko Erregiña den Orregako Amatoxari agertzera.

Gora zuek Nafartar anaiak. Zuek ongi baño xarmanki gure euskal mintzaira, oiturak, eta euskaldunen giarra zaindu, maitatu eta begiratu erakusten dizkiguzue. Ongi etorriak, ez urtean kein, bai ta urteko egun guzietan ere, izan zaitezela, ala Orregako Elizari, nola Na-

fargaraiko erri, mendi, txoko eta bazter guzietara, zuen odoluzko anaiak diren Nafargaraikoek opa dizutee. Nafargaraiak agur maitekor eta anaikor bat Batxe Nafarrari bialtzen dio orrialde ontatik.

BAZTAN

OMENALDIA

San Bartolome'tako bestetan Lekarotz'ko erriak Maurizio txistulariari omenaldia egin dio. Gure txistulari baztandarrak aurtengo Sanbartolometan 25 garren urtea egin du Lekarotz'ko erriara soñue yotzera etortzen dela, ortaz bada lekuztarrek merexi duen omenaldia egin diote zillarrezko eztaien gisera besta eder bat egin. Pilota lekuan bazkaria egin zuten erriko gizon ta gazte geienak Maurizio'kin batean maiean yarririk. An bazen umorea soñu kantu ta dantza denak elkartasun zoragarrian bozkarioa erakusten zutelarik. Lekarotz'ko erriak «Trofeo» delako edergailua eman zion bere omenaldiaren oroitzapena

betiko izan dezan. Zorionak gure Maurizio txistulariari eta segi dezala bertze 25 urtez soñue yotzen eta gu arekin batean bertze orrenbertze urtez mutildantza dantzaten.

IZETA

BARRANKA

BIDEBERRIA

Aundi mendi ta Urbasak ego aldetik, Aralarrek ipar aldetik eginen dute bien taritari Sakana deitzen dakio. Arakil ugaldia alderik alde zearka doa Ziorditik Irurtzunuaño. Iruña, Bitori ta Bilbaokin ta Madrizko bideberri nagusiakin, josten da bidez ta bideberriz. Burnibidea eskasa da, baño bideberria Naparroko Diputazioa amalau metrotarño zabaltzen ari da; Arbaz, Lakuntza ta Arbizuko errietatik alde jartzen ari da; lanak aurreraturik daude, aurtan bertan, udazkenean laguntzen badu aurrealdi ederra emanen dakio.

ESKOLAK

Irañetatik Etxarri-Aranatzaeraño-ko errietatik jasotzekoak dire «Escuelas Profesionales», edo Bizibide (ofizio) ikasteko eskolak. Lakuntzako dermioan. Istillu franko ibili da lekuarengatik, baño noizbait batera ta dire erri denak. Datozela lenbailen denen onerako.

LANTEGI BAT ISTERA

Arbizuko «Olatze» fabrika, burnia umatzeko ola, istera doa, egingako lauaren salmentarik ezta. Lurogei ta amar langille lanik gabe gelditzeraz doazte, nolabait zuzenduko al da ezbear ori ta lenbailen!!

ARANAZ

JUAN ERRANDONEA ZENAREN OROIMENEZ

Garagarrillako illabete ortan gure Eleiazak galdu ditu bi apaiz, Españak bi jakintsu, Euskal Erriak bi zainzalle maite ta leyaltsuak: FAGOGA' tar JUAN. Artaz azkeneko ikustaldiak zakarren berri, gaur xoko bat Errandoneari.

D. Juan, guretako Juanito, Bera-ko semea, 49 urtez, gizandi bat izanik, ixil ixilik munduan pasatu da. Iruñako Seminariuan apez egin zan. Apez gai gertua zan: aren onbide edo virtuteak argiaski ikusi genduen estudioko denboretan. Zan zuzena bañan beratxa, langillea bañan yostakorra. Bokazio gauzetan osoa, lagunekin errexa, denendako idekia.

Denak ezautu genduen gero apaiztua. Nolako gaia, alako apezta: Evangeluaren bai antzekoa uraxe bere solas, egite eta ibillera guztietan. Eta Evangeluaren arauz, argi dirdaitzu izandu zan bere jakinduriaz eta erakaspenean. Etzuan argia lakaripean gordetu, nunai edatu baitzuan bere jakintasuna. Seminarioko karrera aski etzula, amairu urte Erroman geiago ta geiago ikasten eta ikusten; zortzi urte Madrillgo Unibersidadean erakusten; an ere beti estudiasten, ikustalde ta liburu berriak eginen. Gai guzietan bazakien ibiltzen. Gauza guzietan irizpide edo criterio garbia zuan. Orra zertaz arekin solastatzea gauz atsegigarria zan.

Alaere argi-izpi dirdaitzuen: izkuntza mota aunitzetan mintzatu ta idaztia zuan: amazapi izkuntza beintzat bazakizkien. Urte Sainduan Erroman Europako izkuntza guzietan konfesatu zuala berak erraten zuan. Españako «Ministro de Asuntos Exteriores», Kastiella Jaunak, orduan Vatikanoko Embajadoreak, orain dela amalau urte, D. Juan eri eta iltzoko zorrian zegola, esan zuan: «au galtzen bada izkuntz jakitean, Españako oberena galduko dugu». Auniz gauz berak idatziak, mundu guzian argiratu dira, bañan aren lan bikañena eta aipatuena «EDEN Y PARAISO» izandu da. Liburu onan, Genesis Liburu Sainduetan zarrenaren ertzietan sarturik, erakaspenean izkuntzaren argiratu ditu. Diotenez, liburu au bakarrik aski omen litzake gizon bat famatua izateko munduan.

Baita eskuaren alde ere egin zi-

NEKAZARITZA ETA ABEREAK.

«Nekazaria da, nor-izate asmakor bat; bere ariketak biztanlen bizibiden ontze zuzentzen duna. Ogiaren ugartasuna, ta soña estali ta berotzeko gaiak eginen dituna.

«Bere lan-gaia landarea du, eta erabiltzen du eguzkiren indarraren bitartez trinkotuaz, janari goxoa egiñik, ludi zabaleko gosea kentzeko. Bi ikaskizunak zuzentzen dute bere burua: Jakintza ta Antze, biak jartzen bai diote bere eskuetan indarra lurrik ateratzeko bere sustraia, alperrik dan luditxoari bizia emanaz.

«Kilikatzen du gizakundea sortuaraziz bear ditugun janari ta edariak; bizten ditu bide egokiak, malla goratzeko. Bere askatasunari eusten dio lurra landuaz, lurriari janaria ta edariak kentzen dizkiona, bere urdaila betetzeko. Bere sasi-antzak jartzen du eran, edozein zakar ta ondar, babarrun ta barazki goxotan biurtzeko, biziari iraupena ematen dion usai gozoko loreak egiteko.

«Ztertzen ditu bizia duenak, beren gora-berak ikusiaz eta elkarrekin gurutzetuaz edo nasiaz, lortzen ditu bear ditun ta on zaizkion endak ateraaz. Bere trebetasunakin ezitzen ditu, ezi aal ditezken pixti guziak, indartzen ditu lurrik fruitu obenak iristeko, berexen ditu ekintzak, gaiak ongi aurrera ateratzeko; bikaintzen ditu landareak, uzta obe ta ugariagoak eman dezaten, bereganatzen ditu abere mota guztiak berari irabazia kentzeko.

«Bereganatzen ditu baso ta oianak, eman dezaioten egurra, bere etxetarako eta baita ingia gogoa goratzeko; kezkatzen da toki soilak baratza ederretan biurtzeko.

«Pakezale da gosea itzaliz, ainsteste gaitzen bidea kenduaz; bizten du aberastasuna golde ta beste tramankulun bitartez, euri, eguzki ta airearen laguntzakin, goiko zeru urdin artatxetik etortzen zaizkiola, lurrikin bat egiñez.

Oneraño idatzi deguna, ez da guk asmatua, baño gogoz artu deguna bai, Sartalde-Ameriketako jakintsu baten lanetik artua, Nekazaritza ta Lore-Zaintzaz egiña, eskeratuaz ementxe agertu dedin, nolain itz egiten duen orik ikusteko, zer bearrezkoa dan Nekazaritza, eta ontan lana eginen duna ez beste bizibidetan egin duna baño malla beragogokoa.

Beste siñeska bat, ez nola naikoa noski, Nekazarian alde, da, Freeman, Ipar Amerika'ko Nekazarien Jaurlari Nagusia, gure tarteen dabillan esana: «Odaietaraño'ko etxeak eta egin diran ola berriak, ez dirala ezertxo onetarako, malla-goratzeko bizi diran errietatik, ok ez baldin ba dute oniarri, nekazaritza sendoki bat, lur-lantze egoki bat, itz batean egiatzeko bat. Eta gañera dio: «mall-goratzeko giltza dala nekazaritza oso-oso bat».

Au dana aski ez bada, Nekazaritzaren garrantzia argi ta garbi ikusteko; zer esan nai du, beti, non da obena sabela betetzeko arkituko degun orrek? Asten azken bat dala, oporraldi bat dala, Ugutzapen bat dala, eztaiak dirala, edozein batzar ondore bat dala, gutxitan edo beñere izaten da jatera exeri gabe. Nor eginen du janaria? Sukaldari on batek? Beste iñork, aberats, jakintsu, aaldun edo indartsuk nekazari ez danak?

JOSEBA IMANOL



NAPARROKO TXOKOA

Bideberritako lanak aurreratzen ari dira. Geyenik, Noain eta Tafallako artean, Sakana (Barrankan), eta Tudela inguruan. Muga aldean Ronkal, Salazar eta Aldudekoak ikutu dituzte.

Donapaleun (Saint Palais), abere ikusketa ederra egin dute. Naparroko Diputazio-ko gizonak, eta Nekazarien Elkargoa delako kooperatibakoak an ziren. Beste anitz ere bai, naski. Errekart jaun ospetsuak zuzentzen duen «Lur Berri» batasunak muntatu du. Gustaturik jinak dira gure gizonak; ango arraza-mota eta laneko manerak astiro ikustera joatekoak dira, beste aldi batez.

Sanguetan, idazlanen lenbiziko norgeygokoa (txapelketa bezalatsu) egin dute.

Ultzamako eskolak elgarretaratu dituzte. Aur guzientzat eskola bakarra. Beste anitzetan bezala, Ultzamak aintzina arrapatu! Uste dugu ondotik etorriko direla besteak. Eskolen bedeinkatzean an ziren Gobernadore jauna, Diputazio-ko gizonak eta ikaskaritzako buruak. Zorion eta jakinduri Ultzamako aurrerik!

Gobernuko Industri gauzen buruzagia izan berri dugu Nafarroan. Diputazioak daraman bidea bere begiz ikusi du. Tafalla enantzu aundian abiatu da eta Luzuriaga'ren asmoak aurrera dijoaz.

Doneztebe inguruan ere ez daude lo. Etorkizun aundiko txokoa izan laike.

Gure errien apaintze eta edertzeko lanetan berri onak ditugu. Asko dira sayatzen direnak: Baraibar (Larraun), Almandoz (Baztan), Legasa (Bertizarana), Zubietta, Amayur eta Gazolaz aipatu nahi genituen bereziki.

Estellan pilota-joku berria laister bedeinkatuko dute.

Tudelan bigarren mallako ikastetxea lanean asteko prest dago.

Sakanan (Barrankan), Arbi- zu eta Lakuntzako artean ofizio-ikastetxe bat egitea erabaki dute azkenean. Burruka aundia izan da zenbait erriren artean. Aspaldi beharra zen! Bidasoko Beran ere asmo berdina dute.

Continúan grandes obras de carreteras entre Noain y las cercanías de Tafalla, a lo largo de la Barranca y en toda la Merindad de Tudela y en los pasos fronterizos de Roncal, Salazar y Alduides.

Distintas representaciones de Navarra, entre ellas las de la Diputación Foral y de las Cooperativas del Campo, asisten a un acto de cooperación ganadera en Saint Palais (Baja Navarra) invitados por la organización cooperativa «Lur Berri», dirigida por el Sr. Errecart, a su vez Vicepresidente del Consejo de Bajos Pirineos. La visita resultó muy interesante para nuestros comisionados que próximamente van a desarrollar una visita prolongada para apreciar los progresos en la cuestión de mejora, selección de raza, comercialización, etc.

Se celebran en Sangüesa los primeros Juegos Florales con un gran éxito.

Se inaugura el primer edificio de concentración escolar del Valle de la Ulzama con asistencia del Excmo. Sr. Gobernador Civil, y representaciones de Diputación, Magisterio, etc. Este es el primer ejemplo que indudablemente seguirán otros valles navarros. Enviamos nuestra felicitación al Valle de la Ulzama.

El Ministro de Industria visita Navarra apreciando los grandes progresos del Plan Industrial de la Diputación. En el polígono industrial de Tafalla se nota una gran actividad habiendo empezado ya la construcción en la fábrica de Luzuriaga.

Adelanta la Mancomunidad de Santesteban y su comarca que también tiene un gran porvenir en el desarrollo de la industria.

Varios pueblos navarros rivalizan en el embellecimiento de sus casas. Tenemos que mencionar entre ellos a Baraibar (Larraun), Almandoz (Baztán), Legasa (Bertizarana), Zubietta, May. Gazolaz, etc.

Estella inaugurará su magnífico frontón cubierto y pista polideportiva en una fecha próxima. También en fecha muy próxima se inaugurará el magnífico Instituto de Segunda Enseñanza en Tudela.

Las localidades de la Barranca han establecido un acuerdo para construir la Escuela Profesional entre Arbiyu y Lacunza. También el pueblo de Vera ha decidido reformar una actual edificación para tal fin.

tun estudio aundiak. Erakutsi zuan nola eta nun orain dela lau milla urte mintzaten zan eskuara eta aren argiratzek eskuaren gain Alemaniako eta Inglaterrako jakintsu eta Biblioteka oberrenak eskatzen zituzten. Ete bere liburu aipatuanaren asmentan, bere aita xaarrari eskuara garbian eskeintza eder bat eginen dio.

Eta ixil bizi izandua, ustekabean joan zaigu, azantzik gabe. Ez peridiko, ez radioak artaz dute deus erran. Bere lanik aundiena ere, «EDEN Y PARAISO», il eta gero argiratu izandu da.

Lurrean aren argia itzali, bañan zeruan izar berria piztu. Goian bego.

ARANTZATARRA

SALDIAS

BIDE ZABALA

Oraintxo, bai, Saldisen, bideberria ikusi dugunean, pozik gaudela. Amaika saldistarreki begietako zikiña kendu zaigula, olako aurrerapena ikustean.

Santu Guzietarako bukatu nai omen lukete. Erritik Gurrutzakun bitarteko zear orretan ledabiziko erri-botaldia egin dute. Oraindik bi kilometro urbill izanen dira batere erria botzen asitzekoak. Ia denean urari bere bidea ta bi alderdietako ibilbideak egin ere dituzte. Arri xiatura eta legarra.

Iturriaren arrotitik dakarte.

LESAKA

Lesakako erri txiki baño polita onetatik asi naiz zerbait errateko gogukin. Orain dela aste bat gutxi gora-bera, egondu nintzen erretora jaunakin. Ta solas eta solas, etorri giñan «Principe de Viana» izena dun rebista onengana. Egia, erranaz, aspaldian ba-nuen gogo pixka bat emen zerbait paratzeko. Erretora jaunak erran zitzen sari on bat emanen zitela bialtzen balin banuen zerbait. Minuti artan oso errexa iduritu zaiten, baño biramunian nere buruan gauz bat zegoen: baño zeingaitan itz, edo solas egin? Alde batera yoan, bertzera etorri, gogoratu zaiten poliki izanen zela erriko eskerangatik zerbait erratea. Bi aldiz pentsatu gabe, asi naiz ba.

Baskongado erri, edo probintziak

iru dira: Vizcaya, Gipuzkoa eta Alaba. Baño nik iru oririk bat geyago itzekiko nieke: NAPARRA. Oso seguro nago, naparrakuek alabakuk baño geyago euskera itz egiten dugula baño orixe bai, franko gutxi. Emen Lesakan, orixe pasatzen da, ezutela eginen denak euskeraz itza: eta okerragua: gero ta gutxiago. Zarrak eta mutil gazteak orañik eginen dugu, baño mutikoak oso gutxi. Euskera ongi zekiten gizonak ill ziran, edo ia zartu dira, eta oraingo gazteak euskera erdaraz biurtzen ari gera.

Ni emengo agindaria balin banitz, aginduko nuke bando bat yotzea erranaz: Alkali jaunaren partez, erri onetako eskoletan, emendik atziñera, eman bear dela iru edo lau ordu euskera astero. Etzen errexa, edo franko errexa benipein izanen? Niri benipein ala iduritzen zait.

Amabost urteko muthiko bat

Umien Euskal Besta DONEZTEBE'N

1966 urteko Urrillaren 9 egunean. —

Atsaldeko lau t'erditan

Pelota Platzen

Donamari, Gaztelu, Urrotz, Oitz, Beintza, Labaien, Ituren, Elgorriaga eta Donestebe'ko igazko euskeraz examinetan premiatuak (sartuak) izan ziren mutilxo eta neskatxo guzietan premioen banatutzeko, Naparroko Diputazioaren «Euskeraren Alde»-ko Saillak antolatua.

• • •

1go.: Irurite'ko dantzari txikiak Euskal Dantzak batzuek ageraziko dituzte.

2gn.: Irurite'ko taldeak emanika-ko Umien Euskal Yokuak.

• • •

Ondoren, Urbil dagon «Luistarren Etxean» len errandako euskaldun muttiko eta neskatxo guziak bilduko dira. Ona emen berentzako eratatoko eginkizunak:

1go.: Leitzeko bi bertsolari gaztetxoek saioaldia.

2gn.: Iruñeko Peru Txiki famatuak euskeraz far eragingo du.

3gn.: Premioen Banaketa.

MENDIZ

Naparroa luze eta frango zabala da. Naparroko eskualdunak, ez ain ugari; eta auetatik anitzek kanpoan dute beren irabazbidea. Ori edozeinek badaki. Geuren etxetan ikusten dugu.

Jendeak ez dakiena, kanpoan diren langile auekin erri askotan egiten den lana da. Kanpoan bizi den erriko semea, atera ez den bezain erritarra, eta au baño behartuagoa gerta laike. Elitzake ama onaren egitekoa, seme bat bestenganik berretzea. Eta lanbide ortan Eskualeria ez da ama idorra atera.

1956'ko otsailean Frantzi mugako bi apezek argitaratu zituzten, beste anitzen asiera izango ziren orritxoak. «Luzaide» zuten izena. 32 aldiz itsasoa pasaturik, erriko artzainen beharritan sort-lekuko berriak, bederatzirekin erein zituzten. Egunetia bestalde.

Ilabete gutxi barne, Baztango erri jator batek bere aldizkaria sortuko zuen eta, geroztik or datorrigu «Elkartasuna», Arizkun'go berrikerari polita. Azken aldi auetan eskuara geiago sartuz, gañera.

Eta auek baño lehen, Espafiako gerla aintzinean, Aita Damaso agurgarriak Eskualerriko artzai guzietan lan ori bera egin nahi izan zuen. Aita Damasoren orriak bizi laburra izan zuten.

Azken aldi ontan, eta Nafarrokoak aipatzen ditugu bakarrik, izen berriak eldu zaizkigu. Or dugu Saldias'ko jaun erretor jatorra. Ikus berria dut bere «Artzai Deia». Zorionak.

Mendi lanetan dabilzen mutildak, «MENDIZ» izeneko orriak ditugu. Eta au esan nahi nuen gaur: Mendiz, Naparroko mendi gizonen aldizkariak, gure «Principe de Viana» rekin bat egingo du eldu den ilabetetik. Erdiko orri bat erantsiko diogu, alderdi batetik Europa aldean lan egiten dutenen gauzein; eta bertso paperrak besterako utziz.

Napar eskualdunen aldizkaria izan nahi ginukela esatean ez ginuke etxeko semerik kanpoan utzi nahi! Ez etxek bakarrik; mendiz mendi ere.



ARTZAI EUSKUALDUNA

Alpamen aundia badu bazterretan artzai eskualdunak; eta ongi irabazia, naski. Ez dit neri poz aundiegirik ematen. Or ikusten da aspaldikoa duela gure erriak denon mutil izatea.

Belar motzeko ardia bezala, beti munduz ibilia da Eskualerriko semea. Ezin ukatu. Gure lur gaixo au ez da aberatsenetakoa; eta ezin-bizikiak, bestalde, denetara behartu gaitu denbora guzitan.

Gure aita amek Egoamerika zuten gogoan. Arjentina, Chile edo Uruguay, itsasoz beste aldeko baserriak bezala ziren aientzat. Bat geldituko zen emen, belar motzeko semea; eta besteak Ameriketara!

Baztango jauregi eta Indiano-etxeak izerdi frangoren berri eman lezakete! Beste askoren izerdiak, berriz, beren ezurrekin an ustelduko ziren —betiko ixildurik—, edozein menditan.

Gaurko joera Ipar-Ameriketara da. Kalifornia izen polita! Idaho eta Nevada eldu zaizkio gazteari beharritara. Eta gero «dolarra»; zorieko dolarra! Badira azken urte auetan Europako bidea artu dutenak ere. Baño an ere, zoritxarrez, mendi lanetan ez bada, besteak nahi ez dituzten lanetan ibili beharra dute gure mutilak.

Zenbatek senditu ote dute, etxetik atera ondoan, kantauk gogora ekartzen duena: «bañan bihotzak dio, zoaz Eskualerrira!». Bat edo bestek egiten dute; gehienak ez. Ez baidira an ere txakurrak lukainkaz lotzen!

Ezagutu nuen, nere errian, ango itzulia egin zuen gizona.

—Zenbat denbora egin zinuen Ameriketara? esan nion.

—Bi egun eta zenbait ordu.

—...eta nolaz ori?

—Ez bainuen lehenago itzultzeko biderik izan. Nere ustez etzen an lanik egiten eta, nun ikusten dituan bizkarka gizonak lanean! Erdi larrugorrian batzuk, itsas bazterreko zikinkerriak biltzen besteak... Etxera, etxera! esan nuen nik orduan. Eta joan nintzan barku berean, Buenos Aires'tik etxera!

Gure artean gauzak aldatzen dihoaz; beste giro bat sortu da. Atseginez beterik ikusten ditugu fabrika eta lantegi berriak Nafarroko erritan. Gure atzetik eldu direnak izan dezatela orai arte izan ez ginuena: ogibidea.

Aspaldi esana da: «nere etxe pobrea, erregearena baño ohea».

Jinkoak argitu beza lenbaitlen egun ura!

S A G I



ARDOA

—Nik eztakit, Joxepa, erriko ostatu guziak zergatik ibili behar dituzun ardo pixka bat ekartzeko!

—Medikuak agindua baidizu urez kanbiatzea...

MEDIKUAN.

—Gizentasun oiek kentzeko baratz-belar eta fruta utsean egotea aski duzu.

—Ongi dago; baño, bazkal aurrean edo bazkal ondoan artuko ditut?

ZAPETAK.

—Buruan miñik egingo ez duten zapetak atera behar dizkiazu.

—...zapetak buruko miña?

—Bai; nere andreak botatzen dazkitenean.

ESKOLAN

—Pattin; ea zenbat ikasi duzun. Amar duro artu dituzu etxean eta lau galdu bidean. Zer duzu orai polsan?

—Zulo bat aundia.

“Euskal Olinpiada” Naparroan

Iruñean, Olazgoitian, Altsasun eta Donezteben Euskal Yoku guzien txapelketak izan dira Buruillako 23'egunetik 25 eguneraño.

Ainbeste yoku izanik eta emen denak xeeke jartzeko lekurik ez izan, orrengatik txapeladunen izenak besterik ezditugu esango.

Aizkolariak. Nagusiak: Urrezko domifia (medailla): Leitzeko Urkiola; zillarrezkoa: Gorritiko Perez Aburuza.

Aizkolariek. Gazteak: Urrezkoa: Leitzeko Zabaleta. Zillarrezkoa: Ezkurrako Mindegia. Burnizkoa: Olazolola Gipuzkoakoa.

Korrikalariak. Nagusiak: Urrezkoa: Bizkaiko De Miguel; Zillarrezkoa: Uzikoko Ariztimuño. Burnizkoa: Tudelako Ximenez.

Korrikalariak. Gazteak: Urrezkoa: Gipuzkoako Irazusta. Zillarrezkoa: Gipuzkoako Orena. Burnizkoa: Pello Errazkin, Naparrakoa.

Arrijasotzaleak. Nagusiak: Urrezkoa: Leitzeko Zabaleta. Zillarrezkoa: Altsasuko Martikorena. Burnizkoa: Gipuzkoako Ormaetxea.

Arrijasotzaleak. Gazteak: Urrezkoa: Gipuzkoako Taboada. Zillarrezkoa: Gipuzkoako Unanue. Burnizkoa: Naparroko Aramendia.

Palankariak. Urrezkoa: Bizkaiko Errauzkin. Zillarrezkoa: Alabako Armentia. Burnizkoa: Leitzeko Astibia.

Soka-tirariak. Nagusiak: Urrezkoa: Elueteke taldea. Zillarrezkoa: Elizondoko taldea.

Soka-tirariak. Gazteak: Urrezkoa: Baztango Taldea. Zillarrezkoa: Gipuzkoako taldea. Burnizkoa: Alabako Taldea.

Zoskor apustulariak. Nagusiak. Naparroko Ariztimuño (Urrezkoa); Alabako Aldama (Zillarrezkoa); Alabako Zulueta (Burnizkoa).

Zoskor apustulariak. Gazteak: Urrezkoa: Alabako Diaz. Zillarrezkoa: Gonzalez Alabakoa; Burnizkoa: Gipuzkoako Orena.

Segalariak. Nagusiak: Asentsio Balda (Gipuzkoa), Urrezko medaia. Naparroko Zestau, Zillarrezko medailla.

Segalariak. Gazteak: Leitzeko Urkiola (urrezkoa), eta Gipuzkoakoa bestea.

Danetara ordena ontan geratu ziren:

- 1) Naparrak: 14 Urrezko medailla. 14 Zillarrezko Medailla. 4 Burnizko medailla.
- 2) Gipuzkoak: 12 Urrezko medailla. 13 Zillarrezko Medailla. 3 Burnizko medailla.
- 3) Bizkaiak: 4 Urrezko medailla.
- 4) Alabak: 2 Urrezko medailla. 5 Zillarrezko medailla. 3 Burnizko medailla.

Naparroa beraz Euskalerriko lenengo Euskal Yokuen Txapelketetan txapeldun (Nagusi) geratu zen, eta Gipuzkoa Naparroatik urbil-urbil gelditu zen. Zorionak Naparroa eta Gipuzkoako euskal yokulariei, eta Euskal Yoku oken antolatzailei.

DONOSTI'KO EUSKAL ASTEKO JOLASAK

Aurtengo Buruilla'ko ilabetean Donosti'ko iri zoragarrian euskal besta ederrak izan ditugu, yende aunitz ibili da eta eztago dudarik besta oiek arrakasta aundia izan dutela.

Yoan den Buruillaren 4'ean Anoeta'ko zelaiean aritu ziren lasterkariak eta sokatirariak zein-geiagoka, lasterkariak zortzi kilometroko bidean eta amar ekipa sokatirakoak denak indartsuak eta borrokari fierak. Gipuzkoatik sei talde, Oiarzun'go ITURRIOTZ, ALTZIBAR, GAZTEDI, Donostiko BAR JUANITO'koak, ERREZIL eta LEGAZPIA. Bizkaitik iru, ERANDIO, MARKINA, LEJONA, eta Nafarroa' tik bat BAZTAN. Lendabiziko tiraldiak egin ta ondoan borts irabazaleak aurrera pasatu ziran. LEJONA, ALTZIBAR, ERANDIO ta BAZTAN. Borts ekipa irabaztun oiek eta galtzaleetarik borrokaldietan denbora geiena irauan zuten iruek (LEGAZPIA, MARKINA,



ITURRIOTZ) zortzi talde osotu zuten eta orduan berriz bidenazka borrokan. Bigarren saio ortatik lau irabaztun atera ziren: BAR JUANITO, ITURRIOTZ, ALTZI-BAR eta ERANDIO. Gero azkenengo saioa egin ondorean, ERANDIO ta ALTZI-BAR gelditu ziren finalerako. Zazpi korrikalari aritu ziren lasterka eta Iruntxiberrri gipuzkoarra izan zen garaile, Txantxon usurbildarra bigarren zelarik.

Urrengo igandean Buruillaren 11' ean eta Anoeta'ko leku berean yokatu zituzten korrikalari ta sokatirako finalak. Iruntxiberrri ta Txantxon buruz buru lasterka zeingeigoka amar kilometroko bidean bi korrikalariak beren ahalmenak ongi agertu zituztelarik. Iruntxiberrri aiarak aisa irabazi zuen, Txantxon be-



roarekin leher eginik bortzgarren kilometroan gelditu zen lasterketa galdutzat utzirik eta bizkitartean Iruntxiberrri'k amar kilometroak osotu zituen korrikalarien Txapela ardietsirik. ALTZI-BAR ta ERANDIO'ko sokatirari taldeak beren indarrak negurtu zituzten eta erandiotarrek aisa irabazi sokatirarien Txapelgoa bereganatu. Gizon bizkorak bizkaitar oiek, banaz bertze 108 kilo ta txikiak 1,85 m. luze zalla izanen da noski oieri Txapela kentzea.

Azkenean aizkolarien Txapelketa yokatu zuten. Aizkora yoko ori bidenazka zen eta zeingeigoketa ortan iru bikote aritu ziren: Leitz'ko ASTIBIA bi anaiak, LATASARRIA eta BEREKOETXEA-ZEBERIO. Bikote bakotzak eta txanda librea 15 enbor moztu beharrak zituzten, borts kana-erdiko, borts 60 ontzako eta bertze borts 72 koak. Borrokaldi izigarria izan zen

sei aizkolariek beren ahalmen guzia erakutsi zutela. LATASARRIA bikoteak irabazi zuen 15 enborrak 41 minuto ta 16 segunoz mozturik. Bigarren ASTIBIA anaiak 43 m. ta 43 s. Irugarren BEREKOETXEA-ZEBERIO 44 m. 51 s. Aizkolarien Txapelketa au oso gustagarria izan da, sei aizkolariek ederki arizanak dira eta yendea ere gorki kontent.

NAPARROKO EUSKAL YOKUEN TXAPELKETAK

Euskalerriko Euskal Yokuen Lenengo Txapelketak yostatu baño leen Naparroak, beste mugaz unaidiko iru probintziak bezala, bere txapeldunak izendatu bear zituen, ondoren Bizkai, Alaba, eta Gipuzkoako lenengoen kontra ari zitezten. Ortarako Buruillaren emetzor-zigarrenean, Leitzeko errian, Naparroko Euskal Yokuen Lenengo Norgeiagoketak egin ziran gure irabazdunak (gure txapeldunak) ateratzeko.

Esan bear dugu emen, txapeldunen izenak jarri baño lentxeago, Naparroako lenengoak Leitzeko erria eta erri onen Alkate den Pello Zabaleta izan direla, joan den igande ortan, ain ongi euskal festa zoragarri au antolatu eta eratu zutelako. Zorionak Pello! Zorionak Leitzeko erria!

Ona emen gure napar txapeldunen izenak.

Korrikalari gazteak: Pello Razkin, Leitzekoa, eta Battista Ariztimuño, Leitzekoa.

Korrikalari adintsuak: Joxe Inazio Ariztimuño, Leitzekoa, eta Elias Ximenez, Tudelakoa.

Aizkolari gazteak: Mikel Mindegia, Ezkurrakoa, eta Juan Luis Zabaleta, Leitzekoa.

Aizkolari adinekoak: Joxe Urkiola, Leitzekoa, eta Mañuel Perez Aburuza, Gorritikoa.

Palankariak (Zankariak): Erramon Zestau, eta Luziano Astibia, biek Leitzekoak.

Arrijasotzale adinekoak: Mikel Zabaleta, Leitzekoa, eta Paulo Martikorena, Altsasukoa.

Zoskor apustulariak: Jesus Zebrian, eta Juan Inazio Amiano, biek Elizondokoak.

Soka-tirari gazteak: Elizondoko Taldea.

Soka-tirari adintsuak: Elizondoko Taldea, eta Eluete'ko Taldea, biek Baztangoak.

BOLETIN DE INSCRIPCION

Don

con domicilio en la localidad de

Calle N.º

desea recibir a domicilio y gratuitamente el Suplemento «PRINCIPE DE VIANA».